

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

6453

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 14koa, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearena, zeinaren bidez izendatzen baitira dekretu honetan jasotako lankidetzarako laguntzen balorazio-batzordeko batzordeburua eta bokalak: 43/2017 Dekretua, otsailaren 14koa, zeinaren bidez 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzen baita.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko uztailaren 7ko Aginduaren 7. oinarriaren 3. paragrafoan arautzen da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 artikuluan agindutako ebaluazio-organoa. 2021eko uztailaren 7ko Agindu horren bidez onartzen dira, 2021erako, dekretu honetan jasotako lankidetzarako laguntzen deialdiaren oinarriak: 43/2017 Dekretua, otsailaren 14koa, zeinaren bidez 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzen baita.

Oinarri horren arabera, ebaluazio-batzordea Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzako hiru pertsonak osatuko dute. Horietako bat ikerketa-programen arduraduna izango da, eta batzordeburu gisa jardungo du. Beste biak, berriz, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzari atxikitako zuzendaritzetako teknikarien artean aukeratuko dira, eta Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearen ebazpen baten bidez izendatuko. Ebazpen horretan, idazkaria zein izango den adieraziko da.

Aurrekoaren arabera, honako hauek osatuko dute ebaluazio-batzordea:

Batzordeburua:

María Luisa Fraile Correa, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako Ikerketa Programen arduraduna (titularra).

Elisa Torre-Enciso Enciso, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako Enpresa Programaren arduraduna (ordezkoa).

Bokalak:

Fernando Sáenz de Buruaga Castillo, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako teknikaria; idazkaria izango da (titularra).

Idoia Sasigain Sáenz de Buruaga, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako teknikaria (ordezkoa).

Josune Jayo Garro, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako teknikaria (titularra).

M.^a Carmen González Hernández, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako teknikaria (ordezkoa).

Honako hauetan ezarritakoaren ondorioetarako, ebazpen honen bidez, organo horren osaera ezartzen da, eta osaera hori argitaratzeko agintzen da: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikuluan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 14a.

Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea,
BITTOR OROZ IZAGIRRE.